# Paola eta Lukene




5. maila

# Zaldiko - Maldiko

# AURKEZPENA:

**Gu Paola eta Lukene gara.**
**Zaldiko – Maldiko izeneko makina berezi bat egin dugu.**
**Guk jolas hau aukeratu dugu gustoko dugulako eta espero dugu zuei ere gustatzea.**

## MATERIALA:

**-Iltzea**
**-Kartoia**
**-Ohola**
**-Kortxoa**
**-Bobina**
**-Lastotxo hodia**
**-Torlojuak**
**-Makiltxo bi**

## TRESNAK:

**-Mailua**
**-Artaziak**
**-Kola**
**-Errotulkiak**

# NOLA EGIN ?

**Lehenengo, egurrezko taula bat eta bi hari bobinak hartu ditugu.**

**Horren ostean, bobina doan lekuan borobil bat marraztu dugu jakiteko non kolatu behar genuen bobina hori.**

**Ondoren, iltzekin bi zulo egin ditugu eta geroago, bi bobinak iltzeen gainean kokatu ditugu.**

**Horren jarraian, goma bi bobinei helduta jarri dugu, horrela bobinak mugitzerakoan, goma ere mugituko zen.**

**Atoan, arkatz bat taularen erdiko bobinaren zulotik sartu dugu eta jarraian, arkatzaren puntan kortxo bat jarri dugu.**

**Gero, bi makiltxo gurutzatuta kortxoaren gainean jarri ditugu eta kortxoari itzaltu dizkiogu.**

**Bukatzeko, kartulinazko lau zaldi egin ditugu eta gurutzatutako makil bakoitzaren muturrean eskegi ditugu.**

# NOLA FUNZIONATZEN DU?

**Tramankulu hau martxan jartzeko pauso hauek jarraitu itzazue:**

**Tramankulu honek bobina bat dauka eta bobinak metalezko makiltxo txikia du. Makiltxo horri bueltak ematen badizkiozu, bobinan dagoen goma mugituko da eta zaldiak bira egiten hasiko dira.**

## OSO ONDO, LORTU DUZZZUUUUU???